

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

336n. zenbakia

2008 martia



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

3.- MAHOMA TA ISLAM

Gizartean aldakuntza aundia ta iraunkorra sortu eban Mahoma'k eta gaur iñoz baiño gogoangarriago dogu erlejiño-sortzaille au. Bere jarraitzailleak antxiñatik dira erri-eskuratzaile aundiak.

Asko dira gaur Mahoma'ren jarraitzailleak, milla milloi-inguru, ia kristiñauak garan beste, eta gaur be burukalariak dira geienak, guda santua'ren aldekoak.

Onuragarria ala kaltegarria izan ete da gizartean Mahoma'k egin dauan lan au? Erantzuna, nori galdetzen jakon, bata edo bestea izango da. Kristiñau garanontzak kaltegarria, mezkitetan belauninko otoitz egiten ikusten doguzanenatzat mesedegarria.

...

615n. urtean asi zan gizartea konturatzen, Mahoma bera 50 urtekoa zanean, 570n. urtean jaio zan La Meka'n, zer etorren gizartearen gaiñera.

Mahoma umezurtz geratu zan, baiña Jadiya deritxon alargun aberats bategaz ezkondu zan eta orrelan ez eban izan eragozpenik bere erlejiño-lana nasai egiteko eta 40 urtekoa zala ikuskizun bat izan eban, batzuren ustez Allah bera agertu jakon, beste batzuren ustez Gabirel goi-aingerua.

Asieran gitxik jarraitu eutsoen. Yadiya bere emaztea eta Ali bere lengusua izan ziran lenengoak, gero Ali ezkondu egin zan Mahoma'ren alabea zan Fatima'gaz.

...

610n. urte inguruan asi zan bere irakatsiak zabaltzen eta 619n. urtean alkarte bat sortu eban. Bere Jainkoa, euren antxiñako Allah zan eta gero sinistu eban Allah ori Biblia'ko Jainkoa bera zala.

Entzuleak asieran ez ebezan onartu bere irakatsiak, arabiarrek jainko askoren gurtzaille izaten oituak ziralako eta irakatsi barriak sendia ondo ez ebelako zaintzen.

Dana dala, leiñu txikietan bizi ziran arabiarrek batzea lortu eban eta a zelako indarra artu eben!

La Meka uritik Medina'ra joan bear izan eban, alde batetik La Meka'n ain onartua ez zalako eta bestetik Medina'n sendien artean bakeak egiteko bear ebelako. Urteera oneri Hejira esaten dautsoe eta ortik asten dira urteak zenbatzen (622n. urteko uztaillaren 16n. egunetik)

...

Medina'n asko aldatu ziran Mahoma'ren eritxiak eta ez onerako. Bera agintari egin ebenean onartu ebazan guda santua, erri guztiak federa ekarteko bide lez, eta asko biurtu ziran baiña ez guztiak zintzoak. Judatarrek, euren ondasunak kendu eta erbesteratzeko edo erailteko agindua emon eban. Politikea ta erlejiñoa bat egin ebazan eta islam'era biurtzea irabazpide on biurtu. Gudetatik irabazi aundiak etozan (botines de guerra) eta basamortuko karabanadun taldeai be dirua kentzea onartu eban. Mahoma bera be gaztetan karabanakaz ibillia zan.

(Diru orretatik 1/5 zan Mahoma'rentzat).

Arrigarri jaku besteai dirua kentzea ta gogorkeriz jokatzea onartzen dauan erlejiñoa! Orduko gogorkeriak ba'dauko gaurko islandarren jokabidearen antza. Gogoratu Bin Laden edo Madrid'eko ilketak.

...

618n. urtean alkartu ziran La Meka ta Medina, Medina nagusi zala. Uri onetan dago Al Kaaba deritxon arri baltza eta orren ingurura izaten da arabiarren ibillaldia bizitza guztian bein gitxienez.

632n. urtean joan zan azkenengoz Mahoma La Meka'tik Medina'ra eta andik laster il zan.

Bere ondoren Arabia'n islam da onartutako erlejiño bakarra eta islam'era sartzen ez diranai ondasunak kentzen jakez eta erail edo erbesteratu. Bide orretatik, asko zabaldu dira munduan.

...

Euren ekintzarik beñenak oneik dira: 1.-Allah, jainko bakarra gurtu.2.-Ramadan illebeteko baraua egin.3.-Emazte asko eta mirabeak eukitea zillegizat artu.4.-Otoitza egin egunenau irutan La Meka'ra begira.5.-Limosnea egin. 6.- Guda Santua.7.-Bizitza guztian bein, gitxienez La Meka'ra joan...

...

Guk errez ikusten dogu islam erlejiñoak gai askotan biurtzea bear dauala, munduan guztiok bakean bizi nai ba'dogu. Ba-dago orretarako itxaropenik?

XVI gizaldiak kristiñauak larri-une aundia izan eben, oiturak eta bizikerea asko aldatu ziralako eta Lutero barriztatzaillea agertu zalako. Onen bidea Biblia dan lez onartzea eta erdi-aroko loikeri illunak alboratzea zan. Ortik sortu al izan zan gero jakituriaren aldia (ilustración) eta gero iraultzak Europa'n et Ameriketan oso era ezbardeñean.

Jazoko ete da olakorik islam'en fede ori eguneratzeko?

Ezetz esan bear!

Islamdarrak euren erlejiñoa onena dala uste dabe, kristiñauena aurrean zala egiñeko aldakuntza dalako.

Eta islam'en aldakuntzarik sortzen ba'da eurentzat geiago "Koran"en bidea artzeko izango da: Emakumeak gaur lez egoera larrian jarraituko dabe euren testigantzak gizonen erdia balio dabela, etorpidetako ondasunetatik gizonen erdia baiño artzen ez dabela, euren buruak eta arpegiak burka'gaz estaltzen dabezela, beste erlejiñoak mespreziatuak izango dira, guda santua onartuko da, izukerizko ekintzak ugaritu egingo dira euren ustez fedebakoak zigortzeko bear diralako.

Berba baten dana esateko:"aldakuntzarik etortekotan, integrismora joko dabe."

YORK BARRI'N EUSKEREAREN AURKA



Doyaga eta Sotes alkar-izketaren ondoren.

“Ni laguntzaille lez joan naz- diño onek- Gobernua Emilia´gaz batera datorrela ziurtatzeko”.

Sotes´ek eta Doyaga´k pozik urte dabela diño, naiz eta okerra zuzentzeko ezer idatziko dabenik esan ez: “Guk, euskaldun lez, egin bear izan doguna egin dogu eta mezu zuzena euskuratu dautsegu”.

OLAZAR´tar Martin´ek

“The woll Street Journal” aldizkariak idaz- lan arrigarri bat argitaratu eban joan dan azillaren 6n. egunean, idazlea Keith Jhonson zala idazpurua “Euskaldunen izkisiziñoa:Zelan esaten dan “pastor” euskeraz.” zala.

Idaz- lan orretan, beste gauza askoren artean oneik agiri ziran:”Euskal independentzi- zaleak orain gramatika ateraten dabe zizparen ordez”, “kaleetatik poliziak kentzen dira gramatika ikasi dagien”.

Euskaldunak gogor jarri ziran idazki orren aurka albiste- bide askotan agertu ziralako. Idazleari oar asko bialdu eutsoezan beronen aurka eta onek erantzun au emon dau:”Nik ez dot iñoz izan euskereari erasoteko ametsik eta euskaldunai iraiñik egin ba´dautset, orrek samindu egiten nau”.

“Deia” egunkaria alegindu da Keith Jhonson´en barriak jakiten, bai telefonoz eta bai tximist- bidalgoz, baiña ez dau iñoz erantzuten.

Ipar- Amerika´ko aldizkari onek ez dau nai beste lan bat idazterik, ori litzake iraiña kentzeko bide bat.

17 000 izenpetzaille euskaldunek idatzi dautsoe egunkari onen zuzendari- ordeari euskerearen alde egiteko. Eusko Ikaskuntzak batu dauz izenpe oneik.

Egunkari orrek artu dau bere idazgoan York Barri´ko Euskal- Etxearen Zuzendari dan Emilia Doyaga eta onek alegiñak egin dauz ekonomi- egunkari orrek iraiña aintzat artu dagian, berak esandako berbak:”Euskerea atzeratua dala”, “baserrikoa dala” eta “Ezetara egokitu eziña” dala esan dauanean.

Karen Pensiero Zuzendari- Ordeak izenpeak onartu dauz eta batera eroan jakozan agiriak be bai.

Emilia Doyaga´gaz batera joan da Egunkari´ra York Barri´n Eusko Jaurlaritzaren ordezkari dan Aitor Sotes:

EUSKEREAA AZTERGAI

Idaz- lan aztertua

Idazpurua:”Inquisición vasca. ¿Cómo se dice “Pastor” en euskera?

Idazlea: Keith Johnson.

Aldizkaria: The wal journal

Eguna:2007-11-06.

Ekintza:Día internacional del euskera 2007.

Itzultzaillea: Olazar´tar Martin.

OARRA:Berba- bide zabala ta luzea emon dau idaz- lan onek eta ZER´en irakurleai barri zeatza emoteko, idazlana euskeratu egingo dogu eta oar batzuk egin. Gero beste lan bat egingo dogu gai oneri buruz.

“Rosa Eskibias estututa dago eukaldunen burrukaren barruan aurrerengo doalako, España´tik askatasuna lortzeko jokoan. Benetan lenengo lerroan dago euskerearen ikastaldian.

Eskibias´ek 50 urte daukaz, bigarren maillan matematiken irakaslea da, erdelduna eta Bilbao´tik etorria, eta euskerea ikasi bear dau bere lan- tokia galdu ez egiteko(1). Beste amar ikaskideak lez, or sartzen da etorkiñai gaztelerea irakasten dautsena be, gitxienez urtebeteko epea edo zapatu- urtea emon dautsoe, irabazia galdu bagerik, astean 25 orduan bururatu dagizan euskerearen aditzak eta iztegia. Izkuntza onek ez dauka zer- ikusirik Europa´ko beste izkuntzakaz eta milloi bat baiño gitxiago dira berau darabilenak. Ez aitzu 450 milloi dirala gaztelera- radunak (2).

“Nik egiten dodan lana egiteko, euskerea ikastea geiegikeri bat da” diño Eskibias´ek.(3)

Euskal-askatasun zaleak 39 urte daroetz España´tik askatasun osoa lortzen, baiña aspaldiko urteetan asko naiago dabe izkilluakaz baiño gramatikeagaz egin burruka ori. Askatasun-zaleak euren lurralde askatua nai dabe eta bitartean agiriko bizitza osoan euskerea ezarri. Gaur Euskalerrriak 2,1 milloi biztanle dauz eta euretatik %30 inguru dira euskeraz berba egiten dabenak eta %95 dira gazteleraz itz egiten dabenak.

Euskalerrriko jaurlaritz(4) asi da loturak estututen izkuntza-arloan eta gaur erri-aurreko langille guztiak, karteruak naiz su-amatatzaileak izan, euskerea ikasi bear dabe lan-lekua lortzeko edo eukiteko. Ertzaiñak kaleak izten dabez gramatika ikastera joateko eta lantegiak Jaurlaritzagaz daukezan artu-emonetan euskeraz egin bear dabe. Datorren urtean asita, erri-aurreko eskoletara sartzen diran ikasleak euren irakastaldiak euskera utsean artuko dabez.

Euskalerrrian osagilleak urri dagoz baiña osakidetzak beartu egiten dauz osagilleak euskeraz berba egiteko (5). Osakidetzako araudiak zeatz diño euskerea zelan erabilli egoera bakoitzean naiz gaisoak ikertzen diranean naiz telefonoz oar bat egiten danean naiz erri-aurrean oar bat ipinten danean (lenengo euskeraz, gero erderaz). Arauak dagoz zelako izkia erabilli agertzeko eta gaiso-etxeetan oarrak non ipiñi esateko (euskerazkoak goian edo ezkerrean eta beti izki baltzez)(6).

Euskal ekintzaren elburua euskerea ta erdere “ofizialkide” izatetik “bardinkide” izatera eltzea da. Euskerearen aldetzaileai entzun ezkerori, ori bearrezko gauzea da len izan dan izkuntzaren zapalkuntza bardintzeko(7). Euskerea debekatuta egon zan 36 urtean Franco´ren diktadurapean eta ez zan erabilten asi 1980n. urtera arte.

Elebitasundun gizartea nai ba´dogu, bereizkuntza (diskriminaziñoa) egin bear da euskerearen alde (8), ori diño Eskibias´ek ikasten dauan lako akademien arduradun dan Mertxe Mujika´k. Euskaldun askok oraindiño be bereizituta ikusten dabez euren buruak, españera nagusi dalako.

Baiña abertzale euskaldunak euskerea indartzen lan egiten daben artean, pozzarria ez dan giroa aurkitzen dabe.

“Eguneroko bizitzan ez da erabilten euskerea” (9), diño Leopoldo Barreda euskal parlamentuan “PP”ko arduradun danak. Millak urteetan bizi izan da (euskerazko idazkiak gastelerazkoa baiño lenagokoak dira) euskerea izkuntza zar biurtua da eta ez da egokia oraingo bizitzarako. Euskereak ez dauka ezelako artu-emon edo antzik beste izkuntza bategaz be, batzuk bereberakaz edo eskimalem al inuik izkuntzagaz zer-ikusia daukala esan arren.

Esaterako, ”aeropuerto, ciencia, renacimiento, democracia, gobierno ta independencia” oraintsu asmatutako berbak dira eta betikoa izan dan euskeran

ez dauke sustrairik: Aireportu, zientzia, errenazimendu, demokrazia, gobernu, idependentzia. (10).

Ostera, 10 itz dagoz “pastor” euskeratzeko, zelako piztiak diran kontuan artuta (11): Astazain, esaterako, astoak zaintzen dauzana, urdain txarriak zaintzen dauzana, beiak zaintzen dauzana euskeraz beizain da. Europa´ko izkuntzak antzeko itzentzat antzeko sustraiak daukez, esaterako zenbakiak (three, drei, tres, trois), baiña eskerazkoak orrean antzik ez dauke: bat, bi, iru, lau eta amar´era eldu arte (12). Sinistedun euskaldunak “Jainko” gurtzen dabe.

Eusko Jaurlaritz(4) urteetan alegindu da eta billoiak euroak eralgi dauz alegin au egiteko: Erri-aurreko agiri guztiak, Osakidetzako lana eskatzeko naiz Europa Baturako lur-langintzarako bekak eskatzeko, esukeraz be egon daitez. (13). Baiña aurrean abertzaletasunaren zeazka (14) dan Donostia´n, lurraldeko bigarren uri nagusia da au, iñok ez dau eskatu gidarien azterketa euskeraz egiterik.

Euskerazko EITB´n ekiñaldi ospetsuak dagoz, esaterako “Pipi galtzaluz” baiña ikusleak euskalerrian %4´4 baiño ez dira, Taylor Nelson Sofres´en jakingarriak diñoenez Erri-Aurreko Tv´n abereai buruz diran ekiñaldiak baiño gitxiago. (15).

Euskalerrriaren askatasun osoa eskatzen dabenak be euren arazoak daukez euskerazko gramatika erabilteko. Eusko Jaurlaritzaren Lendakari dan Juan Jose Ibarretxe´k ez darabil euskerea erreztasun aundiagaz prensa-aurreko ekiñaldietan. Berau be beste askoren antzera españeraz itz egiten azi zan eta gero ikasi eban euskerea.(16).

Izkuntzaren jokabide barrietara sartu bear izan daben elduak, gaitx aurkitzen dabe euskerea ikastea.”Zarren artean azkenak garala uste dot, baiña ez daukagu beste aukerarik” diño Ignazio Gartzia(17). Au matematiken irakasle da, Eskibias´en eskola-lagun eta izarditan jartzen da euskerazko azterketa egiteko daukazan idazkien aurrean.

Izkuntza-arloko jokabideak eldu asko eroan dauz ber-eziketa lanera eta amarka millak izan dira barriro eskolara joan bear izan dabenak. Onein arazoak agertu dira euskerazko komik baten: Euskaldunak ez diran elduak dira, euskaltegira bialduak, eta len-maillako euren ikasleai eskatu bear dautsee laguntza, egin bear dabezan ariketak egiteko.

Joseba Arregi(18) Jakintza-Saileko arduradun izanak, jaiotzatik euskalduna eta aldi baten izkuntza-arloko jokabidea zuzendu ebanak uste dau euskera-arloan larregi bultz egiten dala. “Euskerea ez da egokia eguneroko alkar-izketarako”, diño. “Izkuntza bat goitik bera ezarten danean, gitxiago erabilten da eta ortik sortzen da askatu-eziñeko korapilloa, goitik beera ezartzearen eta alboratzearen artean” (19).

Ikas-lekuetan euskerea erabilli-bearrak bidea zabaldu dautse askatasun-zaleai urtenbideak neurtzeko. Euskerazko esku-liburuak ez dautse agertzen ikasleai Euskalerrria España´ren zatia dala, esaterako, lenengo

maillako liburu batzutan ez da aitatu be egiten España (20).

Euskadi'n bizi diran ikasleai esaten jake Euskalerrria España-aldean eta Frantze-barrenean kokatzen dala eta España laterriak kolonizatu ebala(21).

Be-maillako politiku batzuk arduratuta dagoz, euskerea ainbetse aitatzea, España'ren eta askatasun-zaleen artean alkartzea eziña dalako. "Gazteak gero bizitzan aurkituko dabena dana, (esaterako España'n bizi dirala) Madrid'en ezarketa gogor lez agertzen da" diño PP'ren alduna eta izkuntza.-politikaren aurkakoa dan Santiago Abascal'ek."Onek biozkatuta izten dau eta Euskalerrrian gogorkeria indartzeko bidea da". (22)

Baiña goazen ikas-lekura: ezintasunik geiena gramatika gaitza izatetik dator (23). Azterketak eta ETB'n egitarau onik ez aurkitzea dira oretarako bide.

Arantza Goikolea, Eskibias'en irakasleak bide bat eskintzen dau eguneroko beti-bardin diran gauzak alboratzeko. Tamara Allende 25 urteko irakasleak euskera txapurratuan diño gabetan telebista asko ikusten daua.

Euskerazko egitarauak?, itaundu dautso Goikolea'k. Allende'k burua makurtu dau eta aurpegia gorritu jake. "Ez, españerazko ekiñaldiak" diño, eta irakaslea ta ikaskideak zarataka geratzen dira. (24)

OARRAK

- (1) Arazoa oker agertzen da. Nik gizartean ikusten dodanez, euskerea ikasten ez dabena ez jake kentzen lan-lekua. Aspaldiko urte bitan amabost osagille eta bakoitxaren gaiso-zaiña ikertu dodaz. Guztiak izan dira erdeldunak eta eurakaz erderaz egin bear izan dot berba. Osagille bat izan da euskalduna eta ez ikastaroak egin dauzalako, bere sendian euskera egiten izan dalako baiño. Gaiñera onen gaiso-zain laguna be erdelduna zan.
- (2) Nik, euskaldun lez, ez daukat eskubiderik osagille euskaldunak eukiteko? Errietan be abade euskaldunak daukaguz, baiña geienetan ez osagille euskaldunak.
- (3) Euskalerrian eta euskaldunen artean egiten ba' dozu zure lana, euskerea jakin bear zeunke eta ez beste guztiak zeurera makurtu-erazo.
- (4) Nik ondo deritxat Eusko Jaurlaritzak euskaldunen sebitzailleai euskera berba egiten jakitea eskatzeari.
- (5) Esan dot zelan dagoan euskaldunen osagilleen arazoa eta ez dago ain zorrotz begiratuta, ezta urrik emon be.
- (6) Euskereak bere indarra eukitea ondo ikusten dot eta ori nai ez dabena gure zapaltzailleak dira, enda-iltzaille edo jenezidak.
- (7) Euskerea zapaldua izan da : Euskera baiño ez nekiala joan nintzan eskolara eta an dana izan zan erdera utsa. Zergaitik? Gero amabi urte egin dodaz ikasten eta berba bat be ez dot entzun euskeraz. Zergaitik? Ez da ori euskerea zapaltzea?
- (8) Euskerea baztertu eta erdere nagusi agertzeko, bereizketa edo diskriminaziñoa egin da beti. Ezer bereiztekotan edo diskriminatzekotan , makalaren alde izan bear dau eta emen makala euskerea da.
- (9) Gure amak ez ekian erderarik, aita be asko ez eta ni eurakaz bizitzako arazo guztietan ondo ulertzen nintzan. Ori "vida real" da.
- (10) Artutako maillego-itzak (préstamos) inglesean %80 baiño geiago dira eta euskereak be artu leiz olako itzak, baiña euskereak bere barrutik itzak sortzeko almen aundia dauka eta maillego larregi artzea arriskugarri litzake izkuntza onentzat. Sarritan itz bi erabilten doguz, esaterako urrutizkiña/ telefona. Ona emen aitatzten diran itzak bietara: aireportu/ egazkinzelai, zientziak/jakintza, errenazimentu/ berjaiotza, independentzia/etena edo askatasun osoa.
- (11) Izkuntza guztietan jazoten dan gauzea da ori. Jakintza baten barruan doa izkuntza eta bere arloan itz asko geiago daukaz, esaterako arrantzaleen artean araiñen eta itxas-ontzi giroko izenak ugari dagoz, ez ostera baserrikoak.(Oilloa esaten dautse oillaskoari naiz ollandeari naiz oillarrari...) baserrian, ostera, itz asko daukez euren arloan, baiña ez arraiñen arloan.
- (12) Zenbakietan beste izkuntzak amarka jokutzen dabe: TREinta, CUARENTa, CINCUENta, SESENTa...baiña euskerearen zenbaketak ogei dau oiña, ez amar:ogei, ber-ogei, iru-ogei. Lau-ogei... Frantzerak erdizka, irurogeira arte amarka eta iruriogeitik gora ogeika: Quatre vengt diz.
- (13) Nondik atera dau idazleak Donosti dala abertzaletasunaren zeazka? Zeazkarik izatekotan Bizkaia litzake. Bizkaiatarra zan Sabin Arana.
- (14) Ondo dago gure agirietan euskerea agertzea, beste batzuk euren izkuntzak agertzen dabezen lez. Guk geurea zergaitik ez?
- (15) Idazle onek eritxi txarra dauka EITB'ko egitarauai buruz. Onetan ez naz epaille, baiña egitarau txiroak ba-dira, obetu egin bearko dira eta euskaldunak euskerazkoa entzuten eta ikusten alegindu
- (16) Juan Jose Ibarretxe euskaldun barrien eredu dogu. Etxean ez eban euskerea ikasi beste euskotar asko eta akok be ikasten ez dabena lez. Audio'koa da eta an euskerea antxiñatik galdu-antzean dago. Berak gure izkuntza naikoa ondo erabilten ikasi dau. Beste askok be ori egin bear leukee, esaterako Anasagasti'k.
- (17) Eskerrak Ignazio Gartzia'ri! Beste askok egin bear leukee alegin ori euskerea ikasteko.
- (18) Joseba Arregi aldi baten ondo ebillen euskerearen arloan baiña geroago ta okerrago doa. Irakurri dot bere liburua be, eta eritxi gitxitan nator beragaz

batera: (“La nación vasca posible”. Crítica-Barcelona. Erderaz dago. Zergaitik ez bietara edo, gitxienez, zeozer euskeraz? Maitasuna falta!) Antza dagoenez euskerea irakasten bizi da, zelan atzerantza gure izkuntzaren alde jokatzeko bidean? Euskerea ez dala egokia eguneroko bizitzarako eta alkar-izketarako, diño. Lentxuago aztertu dogu arazo au eta baietzaren alde geratu gara. Gai oneri buruzko idaz-lan baten irakurri dogu: “Euskaldun él, para vergüenza”.

- (19) Goitik jartzen dan izkuntza gorrotatu egiten dala eta ez dala onartzen diño jaun onek. Ba, erdera goitik bera ezarri dauskue eta ez dakit gorrotatu egiten dogun, baiña ikasi eta erabili egiten dogula bear dan baiño geiago, ori bai.
- (20) Gure eskoletako esku-liburu batzutan ez dala España aitatzen. Eta aiatatu bear da? Euren esku-liburuetan aitatzen da Euskalerrria? Ez dago txarto bakoitxak bere bokartari sua urreratzea.
- (21) Euskelerrria non dagon esateko esku-liburu orreik diñoena ez dago ain txarto: “España-inguruan eta Frantze-barrenean”. Eta españatarrak beti alegindu dirala Euskalerrria menperatzeko eta nortasun

bagerik izteko. Ori egi aundia da eta bizitza osoan zomatu dogu guri euskerea kentzeko alegiña, umetatik asita, len be esan dogun lez.

- (22) Euskalerrrian ikusi dogun gogorkeria beti izan da gure erriaren aurka eta ETA´ren jokabidea ez da besterik erantzun txar bat baiño.
- (23) Euskerearen gramatika gaitxa dala? Norentzat? Euren izkuntza latinkumea dabenentzat bai, baiña txinatarrentzat gaztelerea baiño errezagoa da. Kontuan artu, esaterako, zelako nastea dauken latinkumeak kuntza edo generoagaz: “arbol” zergaitik da arra eta “casa” zergaitik emea? Eta “mar” ez bata eta ez bestea. Euskereak ez dauka kuntza edo jenerorik. Aditzaren ikan dago emakumeentzat aditzera bereizi bat.
- (24) Azterketa egin bear litzake EITB´ko egitarauai buruz. Ez dot uste idaz-lan orretan agertzen dan bestean txarrak diranik. Dana dala, ori alboko arazoa da. Eta euskaldunak euskerazko egitarauak gitxi ikustea, bardin. Ezer oker ba´dago, zuzendu daigun.

OLAZAR´tar Martin´ek

BATZAR NAGUSI BEREIZIA

Maiatzaren 8n. egunean, 2008n. urtean,
EUSKERAZALEAK ALKARTEA´K
Batzar Nagusi Bereizia egingo dau.

Lenengo deia: Zazpi ta erdietan
Bigarren deia: zortziretan

Gai bakarra: Gure Araudia eguneratu
Eusko Jaurlaritzaren erdua
aurrean dala.

ZUZENDARIAK

ASAMBLEA GENERAL EXTRAORDINARIA

El día ocho de mayo de 2008
EUSKERAZALEAK ALKARTEA
celebrará Asamblea General Extraordinaria.

1.^a Convocatoria: 7:30.
2.^a Convocatoria: 8:00

El punto único del orden del día será: Poner
al día nuestros Estatutos teniendo presente el
modelo de Eusko Jaurlaritzza.

EL PRESIDENTE

3.- ARK´EKO JONE DEUNA

Edesti osoan emakumerik arrigarrietariko bat dogu Orleans´eko Damea deritxon Ark´eko Jone Deuna edo Santa Juana de Arko.

Bere bizitzea ondo aztertua izan da: Ikuslea, errege-zalea, martiria...

1412n. urtean jaio zan baserri baten, Frantze´ren iparraldean. 13 urtekoa zala asi zan ikuslea zala esaten eta ikusi ebazanak San Migel, Alexandría´ko Katalina, Margarita Deuna eta beste batzuk izan ziran.

1429n. urtean Karlos Frantze´ko erregea izatea nai eban baiña inguruan eukazan gudari inglesak ez eutsen izten.

Jone joan zan Karlos´egana eta esan eutsen Jaungoikoa bere erregetzaren alde egoala. Erregeak gudariak emon eutsozan inglesen aurka guda egiteko eta Jone´k lortu eban Orleans askatzea.

Baiña Karlos erregeak inglesakaz ituna egitea nai eban eta Jone orren aurka egoan, onek inglesak Frantze´tik kanpora botatea nai eban.

1430n. urtean Jone´k bere kontura ekin eban gudaketan Paris-ondoan, baiña galdu eta inglesen eskuetara jausi zan.

Inglesak salakuntza gogorrek agertu ebezan bere aurka: Fede okerrekoa zala, sorgiña zala eta sorginkeriak egiten ebazala.

Eleiza´ko epaillak epaitu eban Jone Ruan´en. Epailariari ez jakon atsegin Jone gizon jantzita ibiltzen zala jakitea eta ez sorginkerietarako bide ziran eratzunak erabilten ebazala ikustea. Gitxiago izan jakon atsegin, Jone´k esan eban lez, bere erantzupena Jainkoaren aurrekoa zala eta ez

Eleizearen aurrekoa.

Eriotzarako epaia emon eutsoen eta Jone goibel geratu zan: Suaren bildur aundia eukan eta orregaitik autortu ebazan bere okerkeriak eta damutu be egin zan. Ez eben erre,espexeratu baiña.

Baiña gero, espexetik urten ebanean, bere bildur-ikareagaz lotsatu egin zan eta barrero gizon jantzita ibiltzen asi zan, eta oso-osoan lengora biurtu.

Bere buru-gogorkeri orreri sua zor jakon eta 1431n. urtean orrillaren 30n. egunean Ruan´eko plazan erre eben.

Ona artekoa edestiko egia da, baiña edesti onetan emendik aurrera doana, ez da gauza ziurra.

25 urte geroago VII Karlos´ek irabazi eutsen inglesai eta Jone´ren babespean jarri zan. Barrero epaitzeko eta errubako agertzeko eskaria egin eban.

Askok eskatzen eben Ark´eko Jone Santa egitea eta frantzetarren ikur lez agertzea, baiña Eleizearentzat ori ez zan bide argia, inglesak txartzat artuko ebelako..

1920n. urtean egin eben Santa eta berea orrillaren 30n. eguna da, bera erail eben eguna.

Bera erail eta 25 urte geroago ikusi ei eben Paris´en eta bere neba bi ezagutu be egin ebazan. Inkisidoren batek aztertu eban Jone barri au eta ez zan agertu beronen aurka.

Bigarren Jone au ezkondu be egin zan eta batzuren ustez abade bategaz maitemindu be bai. Ete zan au Jone bera? Ala guzurrezko´ren bat?

OLAZAR´tar Martin´ek

ESKERRAK SALBATZAILLEARI

Millinoiak lagunak
ezagutu dauz lurra
bere babesean,
ezbear ta zoridun
era bietako jende
bizitza bidean.

Bizitzaren ardurak,
sarrita, itzal dira
giza indarrarentzat,
laguntasuna bear
ta gizonak Jainkoa
artzen dau laguntzak

Eskerrak Jainkoari,
egin al izan ditu
gauz arrigarriak,
egiz eskertu ditu
gogorik onenagaz
ongi-nai guztiak.

JAUNGOIKO SALBATZAILLE

Gizadi samindua
negar-miñez egoan
mundu zabalean,
gaisorik gizajoa
gaiztakeriak jota
illuntasunean.

Argia bear eban
maitasunez ondurik
bizitza barrian,
lurra itsu egoan
gauz aundietarako`
samiñen artian.

Aita errukitu zan
Semea bialdurik
gizonen artera,
oi... gauz arrigarria,
odolez salbau eban
giza bizikera.

PAULIN

ATAHUALPA

Españatarrak ameriketara eldu baiño lenago, baziran an giza-erakunde aurreratuak eta ondo eratuak, “inperioak”.

Olako aginterri bat osotzen eben inkak, azkenean Atahualpa buru ebela.

Agintaritzza gogorra eta erlejiño-bidekoa ei zan eurena, gaurko izen bat ezartekotan “dictadura teocrática”.

Guk aitatzen doguzan giza-eskubideak ez ziran ondo zaintzen, baiña ori esan daiteke munduan diran beste erakunde guztiai buruz be.

Jakitunak bai, ei ziran. Izarrai begiratzen trebeak eta bide orretatik eratu eben euren egutegia.

Etxegintzan aurreratuak zirala jakiteko naikoa dogu Matxu-Pitxu eurak egindako gotor-lekua aztertzea.

...

Frantzisko Pizarro eldu zan euren artera.

Gizon ospetsu au 1476n. urtean Caceres´eko Trujillo´n jaioa zan. Ume ta gazte-denporan bizimodu latza igaro eban, txarri-zainen lana be egiten ebala.

Europa-aldetik ibillaldi batzuk egin eta etorkizun argirik agiri ez jakon lez, beste askoren antzera, Ameriketarako bidea artu eban eta 1502n. urtean eldu zan ara.

Ekiñaldi asko bete-ondoren, inka arein aurka egin eban guda eta irabazi. Atahualpa agintari nagusia be atxillotu eban.

Atahualpa´k bein esan eutson:

– Zuen agintari nagusiak be ez dauko dana bere menpean, gizaki guztiak ez dabe bera onartzen. Euskaldunak ez dira pozik aurkitzen bere menpean.

Jakiña da euskaldunak Ameriketan beti jokutzen ebela ango errien askatasunaren alde. Ori ez jaken gogoko españatarrari, eta sarritan zigortu be egiten ebezan. Eredu bat agertzekotan Mungia´ko Landetxo aitatuko geunke..

Baiña Atahualpa aspertuta egoan espetxean eta au esan eutson Pizarro´ri:

–Zer eskatzen dozu nire askatasunaren truke?.

Pizarro´ren erantzuna:

–Gagozen gela aundi au urrez bete egizizu, urre orren azpian dagoan gizonak eskua gora jazo eta amar atzak gaiñetik agertu-eziñeko bestean.

Urretza aundia zan ori, baiña Atahualpa´k askatasuna lortu nai eban danaren gaiñetik eta bere lagunakaz berba egin eta lortu eban gelea urrez betetea.

Pizarro´ren lagunak laster banandu eben euren artean urre guztia. Izan be guztiak ziran urre-gose.

...

Urrengo egun baten Pizarro´k gauza bildurgarri au esan eutson:

–Urrea bai ekarri dozu, baiña guk ez daukagu zugan uste onik eta ez dogu astasuna emoterik gura. Eriotzarako epaiak aurrera jarraitzen dau. Laster erailgo zaitugu.

Ondo zapuztuta geratu zan gure Atahualpa. 1553n. urtean erail eben.

...

Baiña erail-aurretik ardura aundi bat sortu jakon Pizarro´ri: Gizon au ez da kristiñaua eta ilten ba´dogu betiko inpernura bialtzen dogu eta ori ez geunke egin bear.

Barriri berba egin eban Atahualpa´gaz eta agertu eutson kontzientziko eutsonkontzientziko arazo larri ori. Eta urtenbidea be zein izango zan adierazo eutson: Erail baiño lenago bateatu egingo eben.

Esan eta egin: Abade bat ekarri eben eta bateatu eben Atahualpa, Pizarro bera aitabitxi zala eta bere izena, Frantzisko, ezarten eutsoela.

Urrengo egunean erail eben eta euren ustez mezede aundia egin eutsoen, zuzen-zuzen zerura joango zalako.

Atahualpa´ren gudariak ori jakin ebenean iges egin eben eta Matxu Pitxu gotor-lekuan oztendu zira.

...

Orra or mundu bi, bata antxiñakoa ta sinistebakoa edo siniste okerrekoa eta bestea Pizarro´rena, mundu kristiñaua. Zein bietatik onena? Irakurleak ebatzi begi.

OLAZAR´tar Martin´ek

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

9.- II FEDER AUNDIA

Gizon au guztiak dauke gizon aundizat. Esaterako Bismarck´ek, Hitler´ek edo Napoleon´ek. Ikusi dagigun nor eta nongoa zan eta zer egin eban.Gudalburu lez da ospetsua baiña ez zan ori bere guraria.

Berlin´en jaio zan,1712n. urtean. Orduan España ta Fratze ziran aundiak, ez ostera II Feder ´en Prusia. Au laterri txiki bat baiño ez zan.

Feder´ek ez eban nai erregetza, gitxiago gudari izan,bere mundua eresa edo musikea eta beste eder-bide batzuk ziran eta naiago eban frantzeraz berba egin doitxeraz baiño.

Amazortzi urtekoa zala Inghlandia´ra iges egin nai izan eban gaiñera etorkiozan eginbearrak ez artzeko. Ez eban lortu.

1733n. urtean, erdi zorotzat eukan, bere aitak beartuta, Isabel Kristina´gaz ezkondu zan eta etorpidedun printzea izatea onartu eban. Bere aita baretu zan eta bere lurralde batera bialdu eban. An ikasi eban edestia eta filosofia eta Voltaire´ren antzeko gizaki entzute aundikoakaz artu-emonak eta eskutitzak izan ebazan.

1744n. urtean aldatu zan bere bizitzea.Aita il jakon eta bera biurtu zan Prusia´ko errege. Gudarako trebetasuna erakutsi eban. Urrengo urteetan bere lurraldeak zabaldu ebazan. Inguruko agintari guztiak arrituta egozan, gudari lez, idazle lez. ereslari edo musiku lez eta politiku lez ain ona zalako.

Idazle lez, esaterako,bere idaz-lan guztiak 30 liburu dira.

“Zazpi urteko guda” izan zan beretzat azterketarik onena: Austria´gaz, Frantze´gaz, España´gaz, Rusia´gaz, Suedia´gaz eta Saxonia´gaz bat eginda egoana eban arerio. Zerbait lagundu eutson II Feder´eri Bretainia Aundiak, baiña dirua baiño ez. Estu aurkitu zan II Feder eta bere burua iltea be otu jakon, baiña ekintzaillea zan eta Rusia atzeratu zanean, bera izan zan irabazle. Tzar´ak atzera egin eban II Feder´eri eutson bildur eta itzaltasunagaitik.

Polonia banadu eben erdibana Rusia´k eta Prusia´k.

Sinistu- eziñekoa da zelan lortu eban guda guzti oneik egin , Prusia´ko lanai begiratu eta filosofi-lanak osotu ebazan.

Bera katolikua zan baiña arrituta begiratzen eban protestanteen diru-aureratzea, lana, alegiña... orrelan gizartea aurrera aterateko eta judatarrai be arrituta begiratzen eutsen.

Asko lagundu eutsen edertiari eta elertiari Gorroto eban alemanen izkuntza.

1786n. urteko dagonillaren 17n. egunean il zan.

Zelakoa zan gudaritza Prusia´n?

Indar aundia eukan laterrian, baiña II Feder´en menpean.

Gudarostea oso eginkorra zan eta ez beti erasokorra. Bear eban gudarostea, baiña ez iñoz diktadura sortzeko bide lez.

Egin eutson bere ikutua Prusia´k II Feder´egaz, Europa´ren edestiari!

OLAZAR´tar Martin´ek

URTEROKO BATZAR NAGUSIA

Martiaren 13n. egunean urteroko
Batzar Nagusia egingo dogu

Lenengo deia: 7 1/2´etan eta
Bigarren deia 8´00retan

GAIK:

Aurkezpena: Zuzendariak.

Urteko kontuak: Karmele Fernandez, diru-zaiñak

Urteko ekintzak: Zuzendariak

Batzordekide barriak, ba´legoz

Erreguak eta eskariak

ZUZENDARIAK

ASAMBLEA GENERAL ANUAL

El 13 de marzo celebrará la Asociación
EUSKERAZALEAK su Asamblea General anual

Primera convocatoria: 7´30

Segunda convocatoria: 8´00

ORDEN DEL DIA:

Presentación: El Presidente

Cuentas de 2007: Karmele Fernandez, tesorera

Actividades del 2007: El Presidente

Nuevos miembros de la Junta si hubiere

Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

EUSKERA

Aznar`ek, maltzurkerien bitarteko alegiñean “News Korporation”en aolkulari lez eta berari lotuta dagon “The Wall Street Journal” amerikar aldizkarian 2.007`an Zemendia`ren 6`an Keith Johnson berri-idazleak, Abaskal`tar Santiago, Barreda`tar Leopoldo ta Arregi`tar Joseba`ren aolkularitzan argitaratuta.

Fazizta-Menperatzaille oneik, erdi-mende guztian euren aurrekoak egin eben antzera, EUSKERA`gaitik esaten dabe: “Euskal Izkuntza, bortxa ta indarkerien izkuntza dala eta ez dauala balio ezertarako, jendekuntzari (civilizaciòn) kalte egiteko baiño”.

Guzur-Zale oneik: “Euskera eta Euskaldunen egi-zaletasunak” zergaitik agertu gure dabez erdeiñuzko (despectivo) eta arbuiozko (despreciativo) itz orreitan ?.

Berezko Egia`k, ezinezkoak biurtzen diralako Menperatzailleak daukien eritzizko asmo-azterpenak beteteko edo eta ezartzeko ?.

Baleiteke !!. Baiña zergaitik eta zeren aurka ?.

EUSKERA: Euskaldunak, milla-urte askoren ikerpeneko bidean (procedimiento empìrico) edo eta aztura-bidetik (crecimiento del conocimiento), Euskal-Izkuntza`ren ondo ta biribildutako lanean, Euskal itzak euren lekuetan ondo aozkatuta bete-betean egokituta geratu daitezcan, gaztelu ederrena eraiki eben.

Lur-Aize-Ur ta Itsas-Abeldi`ai eta bizitzarako gailur oso onek daukan Loredi, Landaredi, Lur, Are, Arri, Arrikatz, Burdin-Mea, Kobak eta gure Lur onetan agertzen diran era guztiko irudiak zentzu audienean izendu ebezan.

Gure Izen-Abizenakaz eta Ekandua`ren arloan bardin eginda, Euskera`ren berba bakotza: “Leku, Era edo eta zeregiñezko gauzatan, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean irudimenduta kokatzen gaitu. Arteko arremantetan eta berbaz mintzatzen garenakaz, egia`ren ziurtasunezko eta xeetasunaren irudimenezko ulermenean kokatuta.

Euskaldunak, alako berezkotasunaren izkuntz-ederragaz jendekuntzatuta ez gara izango...., EGIA ta ASKATASUNA`ren DEMOKRAZIZKO zaletasunezkoak ba ?.

Oraiñarte eta ziur nago emendik aurrera-be alan izango dala: “Euskaldunen berbea, egon diran lekuetan edo kidetuta, EGIA`ren Zentzunkidezko (sinònimo) labelekoa izan dalako beti”.

Eta Menperatzailleak, euren inguruan ez dabelako askatasunik gura..., eurak daukien menperatzailletasunezko-asmakizunetan, ainbeste kalte egiten dautsielako, ez dabiz gudu-indarraren alegiñetan batzangotu gaitezcan, BEREZKO NORTASUN ta IZKUNTZAK aienatu edo desagertu daitezcan ?.

Mundu onetako Sasi-jainko eritzi orreik, oso erpe sakonak daukiez katoliko-aberkidetasunetik onantza, merkataritzaren mozkin guztien indarrak euren

kontrolpean eukinda asmakizunezko ta ametsezko sasi-iruzurgille (pseudo o impositor chapucero, engañosador, fullero) orreik lortzeko.

Beti baiña, JAINKOA`k agindutako BEREZKO-LEGEAKAZ aurkitzen dira eta or !! nun agertzen jakien EUSKAL-JENDEKUNTZA-EDERRENA, Europa`n Homo-Sapiens`etik (Kromaño) IZKUNTZ ta DEMOKRAZIAN zaarrena dana.

Nik, zalantza barik esango neuke “JAINKOA eta BERE LEGEAREN AURKA” dabizela jokutzen.

Ikusi dogu, zelan Euskal-Izkuntzaren berbak, gure alkar-mintzaldietarako zeatezko zentzuan, irudimenezkoak dirala eta bere Europa`ko edestian menperatzen ibili ziran erromatar ta mauritarren izkuntzetatik berba asko artu ba eben-be, sekula ez zan aldatu beren JENDEKUNTZAZKO NORTASUNAREN ZENTZU-DEMOKRATIKO- TIK.

Ez zan gertatu bardiña baiña, menperatzaille orrei guztiz aurka urten eutsienakaz, nortasunean eta izkuntzaren naastekatuta urten ebalako: Asturias`en Bable, Nafarroaren Ego-aldeko ur-bazterrean eta Aragoi`ko Iparraldean Napar-Aragoia eta Burgos inguruan Gaztelerazko latin-kume izkel-gaiztoetan geratu ziralako.

Izkuntzan galdu ba-eben nortasunezko izaera orreik, nola bardindu edo geiegitu egin-leikez EUSKEREAK bere garbitasunean irudimentzen dauan JENDEKUNTZA`rekin ?. Euren asmakuntzagaz beartuta: “Orokartasunaren Alanbear`en gaitik ? (Por su destino en lo Universal, forzando a todos ?). Nungo JAINKOA`gandik daukiez artuta opide edo eliz-opide (prebendas) orreik ?.

1.960`ko amarkadan, Espaina`ko Ele-Jakintza`ren irasle edo sortzaille izan zan Menendez eta Pidal`tar Ramon`eri entzun neuntson: “Gaztelera`ren latin-kumea zentzunean sendotzeko 1.971 Euskal-itz`ekaz tartean sartuta egin bear izan ebela eta a-ta guzti, ainbat itz zentzunezko-gabetasunean geratu zirala. Adibidez: “Playa” itzak, zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, leguntasunagaz (lisura, tersura) edo eta areatutako maskor-ondarrarekin ?.

Euskera`ren-itza: “Laida, Ondarru edo Mutriku`ren Itsas-Bazterreko Ondartza”k, ez gaitu kokatzen..., ulermeneko zentzuan adi-erazi (indicar) gura dogun irudimenezko lekuan ?.

EUSKERA`K, ez dau galdu bear, Homo-Sapiens, Kromaño edo Euskaldunak, milla-urte askotako azturan, Bizitzari adierazpeneko (interpretaciòn a la vida) ekintzan emon eutson zentzuzko xeetasunetik ezer, or !! dagoelako gure jendekuntzaren garaipena eta batez-be: “GURE NORTASUNA`ren ZENTZUZKO IZATASUNA”.

Atutxa`tar Paul

Zornotza`n 2.008`an Urtarrilla`ren 22`an

BETI ALAN IZAN BALITZ? (2N. SARIA)

Ainbat denbora igaro da Bizkaiko erri txikitxo batean jaio nintzala. Ordutik ona nire bizitzak gorabera ugari izan ditu.

Etxean amalau neba-arreba izan ginan. Zarrenak, Estepan eta Txomin, Argentinara joan ziran, ni oindino txiker-txikerra nintzala. Urrengoa, arreba, monja joan zan eta nire aurreko anaiaren aurrekoa Pasionista. Gainerako guztiak, baserrian geratu ginan, baina baserriatik bizitzea ez zan bape erreza, orregatik aritzen ginen basoan bearrean.

Goizean eguna egin orduko jeikitzen ginan; beiak eratzi, azpiak atara, animaliei jaten emon eta azpigarri barria jarri-ostean, biziketaz joaten nintzan serrara.

Serreak bear mota bi eskatzen ebazan. Bata bertan apeak ol biurtzen jardutea, eta bestea, basora joan bear izatea pinuak botaten.

Egunero amar-amabi ordu pasatzen nebazan bearrean eta ez neban inongo minik sentitzen, ori bai, eun gramo ez nebazan sobran izango, lodi arean be ez, sasoiaren nengoan.

Eskolara gutxitan joaten ginan, izan be baserrian bearra egoanean, bedar sasoiaren edo patata batzen iarduten gendunean ezinezkoa zan eskolara joatea, aitte bera etortzen zan eskolara semeen bila, mutilak berak etxean bear egiteko bear ebazala esanez eta eskutik oratuta eramaten ginduzan eskolatik zazpi kilometrorara egoan etxaldera. Gu bitartean, pozik, eskolatik urrun.

Bederatzi urtegaz itzi neban eskola, baina orrek ez dau esan gura idazten eta irakurtzen ez dakidanik, naiko ondo konpontzen naz, deukodan eskola zein dan kontuan artuta...

Soldaduzkara joateko eguna be eldu zan, ogeita bat ilabete igaro nebazan Saharan, bero itzela pasatzen inongo itzalik ez egoan lurralde idor aretan. Amak botaten eustazan lantzean boltsa bat, txorizoakaz, urdaia eta txokolateagaz. Amakatxu gose kendu eustan amak bidalketa arekaz.

Geure denbora guztian euskeraz berbetan aritzen ginan, erdera ezer gitxi genekian eta ama izkuntza izan zan gure arteko alkar ulertzeak bideratzeko era bakarra.

Antxe soldaduzkan ikasi neban dakidan erdera bakarra, leku askotako lagunak egin genduzan, euron artean gailegoak, soriakoak eta extremadurakoak. Mutil onak ziran benetan. Makina bat barre egiten eben Lazkao Txikiri Saharan izandako gertaera kontatzen neutsen bakotzean. Joxe Mieli neu nengoan destakamendu berean suerta jakon soldaduzka egitea. Bein erritik ebizan eta azokan bitxikeriak saltzen ebilen

saltzaile batengana urbildu zan Lazkaomendikoa bere lagunarekin. Lazkao Txiki euskeraz ari zan bere alboan eukon Berriztar bategaz, alako baten bitxi saltzaileak euskeraz erantzun eutson.

– Zuk zelan dakizu euskeraz ba? Galdetu eutson Lazkao Txikik eta saltzaileak urte batzuk Bermeen igaro ebazala lanean esan eutson. Kontu kontari luze aritu ziran barreka eta alkarri lepoan jotzen. Bitartean inguruko soldadu lagunak zur eta lur egozan, euren artean “estos vascos son la leche” esaten eben, “saben hablar hasta árabe”. Gerotxuago jakin eben egia, baina egunak pasa arren, arridura antzematen jaken.

Soldaduzkatik etorri eta ezkondu egin nintzan, gazte-gaztetatik maite neban neskatoagaz. Geure jaiotetxetik gertu jaio zan eta umetatik ezagutzen gendun alkar. Izan neban lenengo neskalaguna beti izan dot bustarkide eta lagun-mina. Lau seme-alaba izan genduzan alkarregaz, zein baino zein zurrangoak eta langileagoak.

Baserria itxi neban kalera joateko, eta guzti orrek aldaketa nabarmena suposatu eban nire bizitzan. Alde batetik, lana aldatu bear izan neban, eraikuntzan peoi asteko. Eta beste alde batetik, baserrian bizitzetik kalera bizitzera pasa nintzan, orrek oiturak aldatzea suposatu eban. Arinago euskara utsean nebilen egunetan zear, gero, erderaz egitera igaro nintzan. Seme-alabekin euskeraz aritzen nintzan beti, eta zer esanik ez emaztearekin, baina inguruak gero eta erdera geiago eskatzen euskun.

Kalean bizi ginan eta gure inguruan etorkin ugari bizi zan. Eurekaz erdera egiten neban ezinbestean, bestela ez ninduten ulertzen. Seme alabak be, erderaz berbetan asi ziran euron artean. Bien bitartean emaztearekin bakarrik egiten neban euskeraz, zorigaiztoko egun baten nere ondolik joan zan arte.

Euskera gure bizitzatik zearo desagertu zan, asikeran baserriarrak ginan, gero kaletarrak, oindino baserriko oiturak mantentzen genduzan kalean bizi arren, esaterako, balkoian egozan lorontzietan perrexika eta piperminak landazen genduzan, edo etxeko balkoian piperrak erretzen genduzan sopleteagaz, labasurik ez baigeneukan.

Buruko ileak galdu aala galdu neban euskerea, lotsatu egiten nintzan seme-alabak euskaltegira joan bear ebela jakitean, errudun sentitzen nintzen eta neure barruan ezer egin ez izanaren damua ageri jatan bein eta berriro.

Urteak aurrera joiazan eta seme-alabak be euren bizimoduari ekin eutsen, beste erri batzutara ezkonduz.

IPUIN-SARIKETA

Egun aitona zarra egoitza baten dago eta noizean bein bisitan etortzen dira seme-alabak, loba txiki eta guzti.

Duela gutxi gauza pozgarri bat gertatu jat. Bat-batean nire inguru erdalduna zala pentsatzen asia nengoala mundu guztia euskeraz berba egiten antzeman dot. Zaintzen nauen erizaina, osagilea, alboan dagozan beste lagun zar batzuk eta knapotik datozen guztiak euskeraz berbetan entzuten dodaz. Zoriontasuna jabete da neure baitan, ez naiz aspaldi ain pozik sentitu. Barriz itzuli naiz aintzinako egunetara, lengo istorietara, gaztarora, Au poza!

Nekatuta nago. Gau baten oeratu eta urrengo goizean ez naiz jaki. Oean ikusten naz ilotz, izera batekin estalirik. Ingurukoek zer dinoen entzun dagiket oraindik eta alabaren abotsa be ezagutu dot. Oso triste egoan osagilearekin euskera ederrean berbetan...

– Osagileak “Tu padre ha muerto del tumor que sufría en el cerebro, no hemos podido hacer mas de lo que hemos hecho”.

– Alaba Jonek. “No ha sufrido verdak? Últimamente se le veía muy feliz, parecía que estaba recordando etapas de su vida”.

– Osagileak. “Estaba en un estado de sock y en estado de regresión, lo curioso es que respondía bien a las preguntas que se le hacían, pero siempre respondiendo en euskara”.

“Pero no se preocupe, estaba sedado para el dolor y no ha sufrido nada...”.

Galduta neukon euskera barriz jaubetu zan ene bizitzan. Inoiz aaztu ezingo dodazan egunak suertatu jatazan, azken atsa emon aurretik. Galduta neukon euskara ebilen buruan batetik bestera, aspaldiko istorioak ekarten. Eta ez ori bakarrik, nire belarri zaar nekatuek be, euskera ederra entzuten eben inguruan.

Merezi izan dau biziteak, egun zoriontsu onek bizi aal izateko sikieran, bai orixe!

Ziortza Arrien Orbe

* * *

JESUSEK MAKURTURIK

Jesus Jainko izanik
lurtarrak askatzeko
gizondu egin zan,
ain maitasun aundiaz
dana emoteraiño
jarri zan Kurutzan.

Mundu guztian dago
Jesusen Kurutzea
maitasun garretan,
zoriontasuna da
eskeinduten dabena
bere samiñetan.

Gizona izatea
ta Jaungoikotasuna
alkartu zituan,
gizona askatzea
zan beraren gogoa
Kurutza Santuan.

GORETSIA IZAN BEDI

Eguzkia ba-dator
beren edertasunaz
urrezko jantsita,
gauzarik ederrena
ortzian agertzen da
goiak urretuta.

Goi ortz zoragarria
lurrera adi dago
almenez betian,
ederra, berez, da ta
urdiñezko jantzirik
izarren artean.

Gora ta gora, beti
zure bikaintsuna
adorez beterik,
egun zoragarria
sortu dozu, gaur, goizez
aintzaz apaindurik.

PAULIN

NORTASUNEZ`KO IZAERA`REN (ZENTZUA (III))

d) MUNDU ONETAKO GIZARTEA`ren JAKINTZA eta ZERGAITIK DEMOKRAZIA ta OREKA`ren BEARTASUNAK ? : Orainarte ikusi dogu, zelan jaiotzatik neurtu bear izan doguzan gure egin bear guztiak, gai oneri JAUNGOIKO`ak emondako LEGE`aren AURKA`koagaz.

JAKINTZA: Mundu onen gai-osotasunezko izaera, desberdintasunaren izaerazko gai-zati txikerragotan osotuta dagoalako, gure iker-lanaren bidetik, nai-ta nai-ez antolamendu orregaz aurkitzen gara eta gero ta geiagoko bereiztasunezko zatitan bakandu egiten doguzelako, gure bizitzeko egokitasunak samurtu edo erreztu egiten doguz.

Norarte ?. Ez dakigun gauza da. Baiña JAUNGOIKOA`ren erabagia dalako, gure ekintzaren bidetik, badakigu IZADI au, orren antolamendupean sortua dala. Gurentzako orregaitik, egiten doguzan edo egin bear doguzan gauza guztiak, gauza txikerretatik asi-ta osotu bear dira: “Tresneria, gailluak, gizartea, izkuntza, jantziak, janariak eta abar guztia”. Gauza guztien zentzuzko garaipenak lortzeko ez dagoalako beste biderik.

Baiña, Egilleak ezin garalako izan, gure almenak ortxe mugatzen dira, guretzat “GAUZAK, ZERGAITIK SORTZEN DIRAN MUGATUTA DAGOALAKO”.

JAUNGOIKOA`k beste garrantzizko gauza ederbat irakasten dasku antolamendu onen bidez: Asiera edo Aintzin-aro, Arri-aro, Erdi-aro, Aro-barrí eta Oraingo-aroko denborak “BARDIÑAK IZAN ZIRALA eta DIRALA” BEREZKOTASUN`ezko IZADI onen LEGEA`k EZ DIRELAKO ALDATZEN.

Orregaitik Gizon/Emakumeen ARIMA`k, LEGE-GAI orreitan oiñarrituta gagozalako, edestiaren belaunik-belaun`eko denbora guztiak dira bardiñak, LEGE orren OITURA edo EKANDUA`ren OREKA`k betetzeko ardurapean jaioten garalako .

Nai-ta guk geiegian, gure norkeria gurtzen alegindu, EGILLEAK garela sinistu gura dogulako.

Orrarte erreza izan da, baiña gure ugaritasunagaz, bear diran gauzak be ugaritu egiten dira eta egin bear diran zentzunezko zeatasunak be bardin. Batez-be askoz geiago, Erromatarren`gandik artu ziran okerrezko bideak ez ba dira zuzentzen.

Andik ona eta gaur egun batez-be, gaiak bere berezkotasunaren zentzuzko izatasun osagarria garbitu ta indarrean orekatzeko daukan eten-bako eta ixilaren lankidetasunezko almenean, guk gure bizitzako ekintzan atal-gai guztietan zikintzen doguna. Gaiak, nai-ta luzeroko

denboran garbitasun orreik bir-orekatu daitezcan aalmen guztia euki, gaur ez dautsagulako denborarik emoten, gure bizitza be galbideko larritasunean ipinten dogu. Eta gizartean bardin, xautzailletasunezko gogo orregaz askatu baiño geiago, traba egin edo eragotzi egiten dalako. Orregaitik ainbeste estanda leku guztietatik.

ZERGAITIK DEMOKRAZIA eta OREKA`ren BEARTASUNA`k:

Demokrazia`ren izen-itx ori aipatzen dogunean, ez dogu adierazten itzak daukan indarra, bere izatasunean ez daukolako ezer. Berak, gizartearen arrazoimeneko gaitasunean (capacidad, competencia), ardurazko-zentzuan daukan indar-aundiari egiten dautson aipamena baiño. Gizartean dagozelako Mundu onetan egin bear direzan OREKA`ren ADIMENEZKO-ARDURA guztiak.

Demokrazia ta askatasunezko itz-bi oneik, gauzabat baiño besterik ez dabe esaten, euren aipamenak Nortasunezko arduraren jabetasunezkoentzat bakarrik diralako, gizartearen zor-eskubideak (derechos humanos) aipatzen doguzenean.

Guretzat, orregaitik bear-bearrezkoak dira: “Gauzak, Demokrazizko-Orekan ta Ekanduaren Neurriko Askatasunean egitea”, Mundu onen erabagiak bereztasunezko zentzura eroan daiguzan, orainarte, sasi-jainkoren arrokerizko dogmaren arauz egin direzan bideak, guztiz korapillotuta dagozelako.

Garrantzizko itz oneik, ez dira txantxan esaten diran itz-gauzak: “GIZARTEA`ren ZOR-ESKUBIDEKO ARDURAK eta DEMOKRAZIZKO ASKATASUNAK” biak esangura eder-bat bakarrik eukinda...., eta zentzun aundiz batera eroan ezkeror: “GAIA`ren EGOKITASUNAK” sekula ez gendukezelako eroango, orainarte eroan doguzan amiltegiko larritasunera.

Ezin bestekoa da !!, sasi-asmakuntzagaitik, Izadi ta Giza`ri egiten dautzaguzan ainbeste lapurketa. “ZEREN ITXAROPENEKIN ?”.

Mundu oneitan, ezin beste gauzarik egin eta edestitik zear, egin bear diran gauza`ri, zergaitik emon bear jakez...., gaur deritxon “Eskuiñ- Aldeko edo xautzailletasunezko” nora-bide ori ?:

Antziñan, K.a. 2.500 urtetik onantza asi ziran norkerizko asmakuntza orreik Persa`kaz Ekialde guztian, Griego`en bereztasunezko demokrazian ezin egoneko larritasunak eraginda.

Gero, K.a. 800 urte inguru Etrusko`ak eta Griegoa`kaz alkartuta, Persen menperatzailletasunezko eta arrazoi-bako bizitz-ura ezin zalako on-artu, Ramnes, Tizio`ak, Luzereak,

Sabino eta Iszeres`ak batu ebazan Palatino mendian, gero, Esparta`tar gudaloztearen jarraibidean Roma-kuadrata izango zana eraikitzeko.

Mundu osoa, kaizar eta izkuntza baten agindupean gura eben, baiña sekula ez ziran konturatu danoren edo Nortasuna euki ebenen baimenagaz egin bear zirala gauza orreik.

Latiña eta Erromatar kaizargotza ezerezetik sortu ziranetik, goraldi aundiak artu ebezan, baiña sekula berezkotasunaren (Democracia-y-lei de la Naturaleza) arrazoirik ez !! Eta bear dan arrazoizko-lekutik ez ziralako ibili, beti lupetzezko ankakaz ibili ziran. Borondate onagaz egiten zan guztia, xautzailletasun-zaleen menpean oratuta geratzen zalako.

Erromatarrak egiten ebezan menperatzailetasunezko astokeriakaitik, Mundu au zentzunezko bide onean sartzeko-be, Kristautasuna sortu zan, lupetzezko anka orreik: “Urrezko, burdiñezko edo galtzairuzko (acero) anka`gaitik ordezkatzeko”.

Dana izan da alperrik baiña, zentzunezko asmo guzti orreik beti !! Sasi-norkerizko asmatzailleakaitik menderatuta geratu diralako.

GUZURRA orregaitik, nai-ta santu-aurpegiagaz mozorrotuta ekarri, azkenean: “JAINKOA`ren BEREZTASUNEZKO LEGEA`kaz”, gura izan barik aurkitzen da. Eta onen aurrean ez dago txantxarrik: “Berak bere izatasunean, gure ekintza gaiztoak berez !! Eta Bere berezko narotasunean (calma), esnearen bitzak-lez, GUZURRAK GAIÑEAN-ARGI eta ezeren adierazpenaren bearrik-gabe danok ikusgeinken lekuan ipiñita dagozelako”.

Gaur nai-ta nai-ez, Mundu onen irugarren borroka nagusian sartuta gagoz, gizartea eta gaiaren izadia ankaz-gora daukaguzalako eta gauza oneik danok jakinda....., bai gure arimak gai-Mundu onetara mozorrotuta zertan datozen jakinda....., ez da egongo iñor !! JAINKOA`ren bildurra eukiko dauenik ?.

Zer egin dabe arduradunak EKANDUAN eta beste jakintzazko arlo guztietan ?.

Gai oneitan bear-bearrezkoa eta beti kontuan euki bear dan gauza dalako, gure ezinbesteko: **BESTE GAUZARIK EGIN**”. Gauzaren egikeran sortzen diran onura edo irabazki guztietan: Bere, Zure edo Nerekoi-zaletasunean bizi bear gara ?.

Mundu oneitako gizaren gogamenean adibidez, begitu zelan, asieran igarribako: “Bere, Zure edo Nere-gogo ziztrin baten erretzasunagaz eskuiñ-aldera bideratuta” eldu leiken, gaur daukagun guztiz neurritz-kanpoko xautzaille madarikatu onen larritasunera.

Egia da, 2.760`urte gitxi gora-beran (baleiteke borondate onagaz izatea), okerreko bide ori artu zala. Baiña..., esaera orrek zer esan nai-dau !!: “Beste ainbeste urte itxaron bear dogula....., asiera orren tokiko aukeran egon gaitezcan osteraz zuzenezko erabagi barri ori artzeko?.

ZER DA....., edo ZERGAITIK DERITXON “EZKER ZUZEN-BIDE BARRI ORI” eta ZERTAN GERATU DA?:

Europa`n batez-be, lantegi-gintza`ren bideak artu ziranean, eskuiñ-zale morroitasunezko egoera larrian egon giñan ezarrira eta XIX`n gizaldean, gizartearen ulermeneko bitarteak zori-onez laburragoak izan ziralako, txirotasunen premiñak aleginduta, giza`ren arrazoitasunezko zor-eskubideak arpegi-auste`ko (careo, entrevista) ausardian (audacia) asi ziran estaibadakutzen eta ordurako Europa guztia laterrituta egoan-lez, berezkotasunezko erri ta erritarrak kontuan artu barik estaibadaikatu ziran.

Kendu egin bear ziran, menperatzailetasunezko eta berezkotasunaren kanpo egin ziran laterritasun orreik, katoliko-abertzaleak (nacional-katolicismo, facinerosos) eta diru-zalekerien (mercantilismo) laguntzagaz indartu egin ebezanak.

Sozialismoa zertan geratu da ? : “Eskuiñ-aldeko fazizta`ren eriztitik, apur baten aldeko desberdintzan”. Daukien sozialismoaren ulermenagaitik, berezkotasunera urbiltzen diralako.

Ekanduzko eritzian dagon naspilduntasunagaitik, berezko NORTASUNA`ren zor-eskubideak ez dabez ulertzen eta faziztak euren diru-zale menperatzaile laterritasunagaz gure daben nortasun barriak artu daiguzan eritzian ezarri diralako, eurak-be Laterritasunaren-menperatzailezko eritzian agertzen dira.

Ikusitasenditu egiten dabe ez dala bidea, berezkotasunak beren legean baktzari zor-jakona berez erakusten dautsolako eta euren gizarteko lanagaitik urbiltasunean dagozelako geiago ulertzen dabe, baiña diruaren premiñ edo zalekeriak zirikatuta ez dira ausartzen.

Euren gaur eguneko Sozialismoaren zentzua, izango ete-da ba.., gizartearen nortasunezko zor-eskubidearen babesle izan barik, gai-diruaren babesle izatea ?.

Edo etorkizunaren bildur diralako, Fazisten antzera..., berezko ERRI ta bere ERRI`tar-NORTASUNAREN iltzailleak (genocidas) izan ?.

Gaur, Sozialismoa`ren zentzu ori ezinezkoa da baragarritzko gogo orreitan artzea, bere izatasunezko gogamena, gizarteari zor jakozan eskubideak babesteko jaiio zalako. Ekanduan naastuta egoteagaitik ez dira konturatzen, baktzari: “Beren ardurazko jabetasunak emon ezker, gizartearen eginkizunak arrazoiz egokitzen dirala”.

Eta errietan, euren-gizarteko borondatearen aurka, menperatzailezko indar bidetik, arduragabearen ezartzen ba-dirala, arduragabetasunezko oitura sortzen dala.

Bai !! NOR-IZATASUNEZKO BEREIZIA`ri sartzen jakozan NORTASUNEZKO EZA`ren LARRIALDIAGAITIK, eskubidearen jabetasunezko ardura orreik, bakeak lortu arte ezin diralako alboratu, gureak eta gure izatasunak diralako, beti borrokan ibili bearra ?.

Gaur gagozan jakiturizko denboratan, lasterrago garbitu ta argitu egin bear dira arrazoizko erabagiak, naita menperatzailleen eragozpenagaitik larri-aldi batzuk egon, pakezko zuzentasunaren aurreraldiko bideak, zentzuak eskatzen dauan baiño askoz astiroago doazelako. Bestela....., eten-bako borroka baten zuzendu bear dira ?.

Zentzunezkoa izango ete-da....., indarkerizko jolas edo Indarkerizko-Arrazoi-bidetik egiten dan BAKERAKO-AURRERALDI ORI ?

Gaiñera, SOZIALISMOA`ren izena artzen dauanak, berezko erri-gizarteetan egokituta dagoela esangura dau, "EZ !! MENPERATZAILLEA`ren EZAR-LEKUETAN". ETA ORREGAITIK GAUR, ARRAZOA`ren ZENTZUA ARGITASUNERA EROAN BEAR DOGU, NAASTETASUN GEIAGOTAN SARTU BARIK.

GURE EUSKALERRIKO GIZARTEETAN ARDURAREN JABETASUNEZKOAK IZAN BA-GIÑAN, OLAKO SARKILKERIAN (golferias) DABIZENAILASTEREURENLEKUETANEZARRITA IPINIKO GENDUZAN "EUSKALERRIA BEREZ eta BEREN ASKATASUNAREN BABESLE IZANEZ-GAIN, ARBASOETATIK GUZTIZ ARDURATUTA DAUALAKO".

GAUR GAIÑERA JAKIÑA DA, BEREZKO-ERRI BAKOITZA BERE ARDURAZKO JARDUN-BIDEAN EZARRI EZKERO, EUROPA OSOTZEN DABEN ERRI BIDETIK, DIRDIRTSU "ARGIDUN" AGERTUKO DIRALA.

ALA....., ESPAINAN BERTAN EZ DA IKUSTEN, NOR-BEREN JABETASUNARI (autonomias) ESKUA APUR-BAT ZABALDUTA, MENPERATZAILLEAK EURAK !! SINISTU EGITEN EZ DABEN LEKURA.., ZELANGO AURRERAKUNTZAK EGIN DOGUZAN ?.

"SOZIALISTAK, KONTURATU BEAR DIRA...., BEREZKOTASUN BAKOITZARI, BERA EMON BEAR JAKOLA; EUSKALERRIA`n, ESPAINA`n, EUROPA`n eta GAGOZAN MUNDU ONETAN, BIZITZA ABERASTASUNEZKO EKANDU eta BAKEZKO OREKA BATEN IRAUN DAGIAN".

EUSKALERRIA:

Euskaldunak konturatu bear gara, JAUNGOIKOA`ren LEGEZ`ko bidean, Euskal Demokraziaren Berbean edo Izatasunezko Jakintzan ezarri gintzanetik, ez giñela iñor menperatzen joan eta gitxiago euren etxe ta lurraz jabetzen.

Gure legezko edo izatezko berbea erri-lez, baktzari bere zor jakon eskubidean emotea edo ordaintzea, gaur arte milla urte askotan izan dalako.

Eta edesti labur oneitan ikusi dogun-lez, Britania`tik Kadiz`eraño Mendebaletik Atlantiko itsasoagaz eta Ekialdetik Italia, Alemania eta Belgika`gaitik mugatuta, lur-zerrenda orreitan lortu gendula daukagun DEMOKRAZIZKO EUSKAL IZATASUNA.

Bai, gure leiñuetatik urrundu ziranak Europa ta Mundu osoan zabaldua, zelan tronkaletik bananduta ebagi jakiezan asierako oiñarritik euki ebezan erriko azturaren demokrazizko oitura eta izkuntza, beste oitura ta izkuntzetan euren itzulkeran agertuta.

Gero erromatarrengandik, gaurko menperatzailletasunaren batzangotasunezko siniskaietan asi-ta (gaur-be erroma`tarren legeakaz gagozelako), berezko-erriak lortu ebezan izkuntzak, demokrazizko oiturak eta lurraldeak, milla zatitan apurtu ebezala. Europa guztian, demokrazizko jakintzan lortu egin zan zentzunezko irudia, milla zatitan banandu ta ongaizkatuta (mezclar lo bueno y lo malo) edo eta naspilduta geratu zalako.

Euskaldunak, JAINKOA`ren LEGE`a eta aztura bidean oituratu genduzan sinismenak babesten, gaur gagozan zazpi-lurraldeetan kokatuta geratu gara.

Eta ez !! erriak bear dauan osasun onenean, bere eskubidearen borrokan, Europa`n erperatu egin ziran amarrukeria (artimaña, artificio, marrulleria) eta maltzurkerizko (fraudentamente, falazmente, falsamente) guzzurraren bideak, berezko gizarte ta-gai jatorrizkoentzat (genuino) etsai-amorrratu aundienak izan dira, gure EUSKAL-ERRIA eta EUROPA`ren DEMOKRAZIA zauri aundiakaz geratu garalako.

EUSKALDUNAK, konturatu bear gara, etsai guzti orreik, or !! dagozela eta gaiñera guzur orreik, gure arteko ulermenetan egin dabezanak ez dirala ongarritasunezkoak, gure gizartearen ulermena, arlo aundi baten beintzat, naastuta geratu dalako.

Orregaitik ipini bear doguz mai baten gaiñean gure EUSKALERRIA`ren IZAERAZKO NORTASUNA, EUSKAREA eta ASKATASUNA`ren alde edo aurka daukaguzan baldintzak, gure IZAERA zelango osasunagaz dagoan jakiteko eta ELBURUZKO NEURRIAK ARTU, DANON ARDURAK ALEGIN BATEN SARTZEKO.

ETA ERRIA DAGON LARRITASUNEZKO EGOERAN EGON-DA, EZ DAUKAGU IÑUNGO LOTSARIK, NAI EZKER ta ESKUBI ALDETIK GAUR GABILTZAN "NEREKOI" JOKO AU EGITEKO. EZ DIRA !! GURE ELBURUAK JOKOAN DAGOZENAK, EUSKALERRIAREN BAIÑO !!

ETXE-BAT GALBIDETIK ATARATEKO, BERE GURASO ta SEME-ALABA GUZTIAK "ELBURU" BATEGAZ EGIN BEAR DABE LAN.

BESTELA ETXE-BIZI ORREN JABETASUNEZKO IZAERAK EGINDA DAGOZ.

EUSKALERRIA EUROPA`ren IZARRA DA eta EZ DAU MEREZI, GAUR DANON ARTEAN EMOTEN DAUTSAGUN LOTSABAKO ARRERA AU.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.007`an GARAGARRILLA`ren 4`an

2.- ZESAR

Kaio Julio Zesar Erroma'n aldakuntza aundi bat egin eban gizona da: Erakala edo errepublikea amaitu eta inperioa asi. Eta ori nai ebalako erail eban Bruto bere seme-ordeak senatuan bertan.

Gizon zurra zan, gudari sendoa, agintari trebea, idazle arrigarria, izlari ikasia eta jaurle ezin-obeia.

K.a. 100n. urtean jaio zan sendi leiñargian, baiña erri zeearen edo plebeioen eskubideen alde jokatu eban beti, Kornelia bere emaztea be erri zeearen barrukoa zan.

Izlaritza ikastera Rodas ugartera joan zan gartzetan, orretan Marko Tulio Zizeron'eri bidea erakutsiz. Gero kuestor eta edil izendatu eban. Edil edo erri-zain zala joko ospetsu batzuk eratu ebazan, erriko iñori dirurik eskatu bagerik, Kraso aberatsak bai lagundu eutson.

“Galietako Guda” eta “Erritarren arteko guda” deritzen liburuak idatzi ebazan.

K.a. 60n. urtean etorri zan Ispania'tik eta Erroma'n iru agintari alkartu ziran, “triumvirato” izenagaz Erroma euren agindupean eukiteko.

Irukote au zapuztu zanean, K.a. 52n. urtean Ponpeio egin eban konsul eta onek Zesar alboratu egin eban, baiña Zesar'en asmoa zan Rubikon ibaia gudariakaz igarotea eta orrelan asi zan “Erritarren arteko guda”.

Ponpeio'ren gudarostea ohea zan, baiña Grezia'ra baztertu ziran obeto guda egiteko, eta Zesar'ek iru illebeteen zapuztu ebazan ponpeiotarrak Italia'n eta Ispanian eta laster agertu zan sasoia Farsalia'ko gudaldi aundia bien artean egiteko. Au be Ponpeio'k galdu eban

eta onek iges egin eban Ejipto' ra eta angoak erail eban. Orduan maitemindu zan Zesar Kleopatra'gaz eta Ejipto Erroma'ren ardurapean geratu zan.

K.a. 47n. urtean irabazi eban Ponto'ko erregearen aurka zan gudaldia eta antxe esan eban “veni, vidi, vici” esaldi ospetsua.

Zesar gizon aundi biurtu zan Erroma osoan: Dictator, Sumus Pontifex, Imperator...

Zergak aldatu ebazan, egutegia barriztatu eban eta “erritar” izena asko zabaldu eban.

Baiña beste agintariak eta Senatua aurka eukazan eta Bruto bere seme-ordeak Senatuan bertan erail eban., “tu quoque fili mi! berbak entzunda gero.

Zergaitik erail ete eban?

Bakar-agintaritza nai ebalako, erriaren agintaritzaren aurka jokatzan ebalako, erkala edo errepublikea kendu nai ebalako. Bruto'k erriaren eskubideen alde jokatu eban, bere aita-ordearen aurka.

Egia esan, Zesar bera ez zan diktadorea, zaintzalle bagerik ibiltan zan gaiñera.

Bere eriotzeagaz amaitu eban bere lana, baiña Erroma'ko errepublikea zaurituta geratu zan. Bakarkoan agintaritzara, enperadoreak sortzeko, bideak zabalik geratzen ziran. Augusto bere lobeak lortuko eban elburu ori gizaldi batzutarako.

OLAZAR'tar Martin'ek

BURUA MENPERATU

Biziaren jaubeak beren izate dana menperatu eban, Jaun ta Jabe izanik gizonen eskuetan ilteko jarri zan.

Zertzuk irakaskizun agertu nai ebazan lurraren aurrean, egi ta maitasuna ziran bere gidari alkartasunean.

Irakatsi onena emon eutsan lurrari aldi on onetan, argi jakituriaz ta maitasun garragaz ondurik bidetan.

JAUNAREN ERRI TA...

Jaunaren erri maite aundia zara izatez nortasun orretan, zure jakituria egiz, da zoragarri lurraren ertzetan.

Lurraren biotzean bizi dira gizonak maitasun garretan, ezer ederragorik aurkitu ete leike mundu egaletan...

Gizadi jakintsua Jaunaren erri maite, zer ederragorik... goraldtu Jaungoikoa zuen jakituriaz, gogoz, indarturik.

PAULIN

23.-TESEO TA MINOTAURO (GREZIA-KRETA)

Atenas´eko Epeo erregearen semea zan Teseo. Aitak bildur aundia eukan bere semeari arerioak oker aundiren bat ez ete eutsoen egingo. Badaezpadan aitagiñe-rrabearen lurraldera bialdu eban Etra bere amagaz. Orrelan aitarien jauregian azi zan mutilla Trezena´n.

Gizon gazte egin zanean basora eroan eban eta an arri aundi bat erakutsi eutsoen eta amak esan eutson:

-Ara, seme: Arri ori ortik kendu eta orren atzean dagoana jasoten ba´dok, itzuli einteke aitagana eta aren ordeko izan.

Sekulako indarraz eldu eutson Teseo´k arriari eta apurka-apurka kendu eban bere tokitik eta arriaren atzean aitak gordetako ezpatea ta oiñetakoak aurkitu ebazan eta ezpata ta oiñetako orreikaz birtu zan Atenas´era.

Aitagana aurkeztu zan eta onek poz audiaz artu eban bere semea, batez bere oiñetakoak eta ezpatea ikusi ebazanean, erriaren aurrean aurkeztu eban bere oiñordeko lez.

Laster izan eban Teseo´k bere nortasuna agertzeko aukerea: Atenas´ko erregeak urtero bialdu bear izaten eutsozan zazpi mutil gazte eta zazpi neskatilla Minos´ko erregeari, onek Minotauro mamu zarra´ri janari lez eskintzeko.

Mamu gaizto ori oso bildurgarria zan: Gizon-burua eta zezen-gorputza eukazan eta uri aretako gazte-jendea janaz bizi zan. Sumendi baten gordeten zan eta alde guztietara koba-zulo eta pasadizu estuz beteta egoan toki ori eta oso gatxa zan andik urtetea, bertako barriak ondo ekizan lagunen bat izan ezik.

Teseo gazte kementsuak lagundu eutsen oraingo onetan mamu orren janari izendatutako gazte errukarriai eta ontzira joan zanean aitari esan eutson onez itzultzen



ba´zan ontziaren oial baltzak kendu eta zuriak ipiñiko ebazala.

Kreta´ra eldu zirañean, sumendiaren atera eroan ebazan gazte errukarriak eta euren artean Teseo kementsua. Ariadna Minos´en alabeagaz maitemindu zan Teseo eta onek ezpata bat eta ari-mataza bat emon eutsozan..

Urrengo goi-zean etorri jaken mamutzarra eta Teseo´ri eraso egin eutson. Onek, ostera,ikaratu barik itxaron eutson ezpatea aidean eukala eta mamuak, adarrak erasoteko, burua makurtu ebanean bizkarretik sartu eutson espatea biotzeraiño eta an jausi zan ilda ankanz gora mamu gaiztoa.

Errez atera ebazan guztiak sumendi aretatik, Ariadna´k emon eutson ari-matasaz baliatuta. Barrura sartzeko orduan aria askatzen joan zan eta mamutzarra il ondoren aria barrero batzea zan naikoa bidea aurkitzeko.

Minos´ko bizi-lagunen zorionak eta txaloak entzuten ontziratu ziran barrero Atenas´eko urira eltzeko.

Baiña pozaren pozez aitzu egin jakon aitari esandakoa, ez ebazan oial baltzak kendu eta zuriak ipiñi. Urira urreratzen joiazala , tontor baten egoan Epeo erregea itxasora begira, noiz ikusiko bere seme Teseo´k gazte arekaz ontzia Minos urira eroaten, eta bertaratu zanean oial baltzakaz etorrela ikusi eban eta saminduta bere burua itxasora bota eban eta an ito zan .

Naigabe aundiz artu bear izan eban Teseo´k bere aitaren erregetza.

OLAZAR´tar Martin´ek.

ETA 10.– MEXIKO



Goitik beera etorri ezkeru, Latin-Amerikara sartzeko atea da Mexiko.

Biztanleak inditarren eta Españatarren ondorengoak dira.

Goi-maillako leun-une aundi baten (2 240m. 1ko goiereaz), sumendiz inguratuta (Orizaba-5 748m., Popocatepete 5 452m., Iztaccihurati 5280n.) dago Mexiko.

Egualdi ona dauke urte guztian, naizta gauak apur bat ozkirriak izan, baiña uriburutik 100 km. 1ra bero ederrak egiten dauz.

Lenago mayak eta aztekak ziran ango biztanleak eta ikusten dira euren aztarnak oraindiño, esaterako Yukatan lurraldean diran piramideak. Euren jainkoak uragaz euken zer-ikusia. Iturriak, zingirak, itxasoak... jainkoen tokiak ziran eurentzat.

Ume txikiak burua leundu eta agiñak zorrotzu egiten eutseezan, izakera berezia izan egien.

Gudak irabazten ebezanean, arerioen buru-azur legortuak izaten ebezan garaipen-ikur.

29 laterrik osotzen dabe Mexiko, baiña lurraren zabaleraz Frantze-lako lau da.

Estutasun barik, zirri-zarra, lan egiten dira zaleak, baiña meztetan lan aundiak egin dabez: Urtero 2 000 tona zidar ateraten dabez, mundu osoan ateraten danaren erdia. Baita kobrea, beruna, burdiña, zinka, azufrea be ateraten dabez eta kafea ta algodoia irabazbide onak dira eurentzat.

Errietan, eleiza zar baten gerizpean, teilla biribilezko etxe txikiak daukez, plazea inguratzen.

Inguruko mendiak zugatzez ondo jantziak dira: izaiak, kaktusak...

Artozko taloak eta euren erako ardua eskintzen dautsez lagunai.

Amaitu baiño len egoera larri bat agertu bear dogu: Mexiko'n asko dira txiroak eta onein guraria lpar Ameriketara sartzea da, baiña mugak ondo zainduta daukez eta oraintxe diardue egiten

orma luze ta ikaragarri bat iñor erbestera ez daiten. Berlin'eko

ormea bota gendun, baiña nonai dagoz orma barriak

OLAZAR'tar Martin'ek.

EUSKALDUN BARRIENTZAT



AMAR ERRUAK

		8		7	3		6	9
		4	5			1		
2	9					5		
4				5	2			
9		6	8			3		4
		5					1	2
	5			4	1		2	
1			9			8		5
6							9	

1	6	7	5	8	2	7	3	9
5	7	8	9	3	6	2	4	1
8	5	9	1	4	7	6	5	3
3	8	5	9	6	4	7	1	2
4	6	5	4	1	7	3	5	8
6	2	9	5	3	2	4	7	1
2	9	3	1	6	8	5	4	7
8	7	4	5	2	9	1	3	6
5	1	8	4	7	3	2	6	9

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²